

EL DESARROLLO HUMANO

Juan Delval

Siglo XXI de España Editores, S. A, Madril, 1994

Nahikoa arraroa irudituko zaio, beharbada, irakurleari, batez ere giza garapenaren munduan aditua ez denari, aldizkariaren toki txiki honetan eskuliburu baten aipamena aurkitzea. Espazio hau erabiltzen ohi da, gehienetan, saioak, monografia berriak, arlo bateko berrikuntzak... ezagutzera emateko; edo, beste batzuetan, autoreari interesatzen zaion teoria, korrante, edo erudituren bat azpimarratzeko edo gogor kritikatzeko, eta ez, agian, zenbait tokitan testuliburu bihur daitekeen lan bat komentatzeko. Egia esan, lerro hauen egileari ere kostatu egin zaio albo batera uztea lehen inpresio edo agindu antzeko hori. Baina, liburua irakurtzean eta, batez ere, komentario honek eskatzen dituen ondorengo gogoetak egitean, gero eta arrazoi gehiago metatu zaizkio azken arrazoi nagusi baten azpian, hots, giza zientzien inguruan dabilen edozein zale, aditu edo besteri, bitxi bat bezala, edo gutxienez irakurgai eta kontsultagai interesgarri bezala plazaratzera bultzatzen duen arrazoi horren azpian.

Gizakumeak biluzik etortzen dira mundura. Garapenean zehar afektuzko, adimenezko, psikomotrizitatezko, hizkuntzazko eta abarrezko jantziak harildu, josi eta jartzen dituzte beren "gorputzean". Askotan erabilia izan da esaldi hau, edo antzekoren bat, eta

zentzu desberdinetan, gainera. Guk ere, kasu honetan, erabili egingo dugu, oso orijinala ez bada ere, baina esaldiaren zentzu sinboliko zuzenean, liburuaren ardatzean aurki dezakegun bezala. Eta "biluzi-jantzi" ahalegin honetan, bere hitzaurrean dugu haririk sendoena eta dotoreena komentario honen jantzia josten hasteko. Horrela dio XIII. orrialdean:

Comprender el sentido de las cosas y por qué suceden de una cierta manera es uno de los mayores placeres que nos está dado saborear, aunque como todos los placeres se disfruta más cuando se ha aprendido a degustarlo. Y cuanto más fascinante es el fenómeno que tratamos de comprender mayor placer se obtiene en el esfuerzo por encontrar un hilo conductor bajo la diversidad de los hechos. Sin duda uno de los fenómenos más fascinantes que nos es dado presenciar, para el que además estamos muy sensibilizados, es el desarrollo de un niño, el esfuerzo por crecer, en todos los sentidos, y pasar del ser desvalido que todos nosotros hemos sido en el nacimiento a convertirnos en adultos.

El objetivo de este libro no es otro que intentar describir cómo la niña se hace mujer, cómo el niño se hace hombre, como el recién nacido se convierte en ser humano, cómo un ser que, cuando viene al mundo parece tan inmaduro, débil, dependiente y expuesto a grandes peligros, logra

sobrevivir y llega a convertirse en una persona autónoma, hábil, dotada de capacidades muy complejas, capaz de relacionarse con los otros, y cómo esas criaturas se han extendido por todo el planeta, y amenazan con invadir otros mundos (...).

Nahiz eta oso zaila izan, gaiaren konplikazioagatik eta, batez ere, Giza Garapena delako zientziaren gaztetasunagatik, markatzen duen helburua bete egiten du, gure ustez, autoreak, eta erarik egokienean bete ere. Alde batetik, hizkuntza erraz eta ulergarrian idatziz, adibideak eta laburpen-koadroak sarritan eskainiz, eta, azken finean, hogeita bost urte luzez aritu den benetako irakasle, hobe esanda, benetako maixuak gordetzen duen didaktikarik egokiena erabiliz.

Bestalde, ez da nahikoa izaten, sarritan, didaktikaren arazoa ondo gainditzea zientzia oso baten patxadazko sintesia egiteko eta agertzeko. Hor dira arazo epistemologikoak: hain zuzen, garapenaren zergatiak, faktore determinatzaileak, edo legeak ezagutzeko eta ondo ulertzeko eragozpen handienak. Beste liburuetan datorrenaren eta ikerketen emaitzen laburpen hutsean gelditu beharrean, sakoneko benetako jarrera ebolutibo bat hartuz, garapenak planteatzen dituen aipatutako galderei bere erantzun propioak ematen saiatzen da Juan Delval. Puntu honetan datza, gure aburuz, liburuaren edo bere egilearen meriturik handiena: bizitza guztia gaiari dedikatu dion pertsonak lortutako heldutasun-maila ote den, edo zazpi urtetan egindako izugarritzko ahaleginaren emaitza, edo bere irakasle izandako Jean Piaget handiaren hondarra, edo faktore guztiek osatzen duten "koktel" baten emaitza ote, ez dakigu, baina benetako pentsalari sa-

kon batek bakarrik egin lezakeen lana dugu esku artean.

Badira, bai, merkatuan, zientzilari askoren artean egindako meritudun lanak eta irakasle ospetsu batzuek bilduma edo konpilazio-erara argitaratu dituztenak; badira, baita, beste hizkuntza batzuetatik gaztelaniara itzulitako liburu garrantzitsuak; hauen guztien ekarpena oso positiboa izan da gure zientzia gaztearen (umearen) garapenerako. Baina, ahalegin honek dituen arrisku eta guzti, komentatzen ari garen liburuaren ekarpenik handiena hutsune bat betetzean datza, hau da, ikuspuntu bakar bat erabiltzen duen garapenari buruzko tratatu bateratu eta sintetiko bat irakurtzeko posibilitatea.

Eta gu ere arriskuan gaude azken baieztapen hau egitean (nahiz eta, sarritan ondo ezagutzen direnean, arriskuak mesedegarri bihurtzen diren aurrerantz egiteko). Adibidez, guretzat "ikuspegi bakar eta bateratua" dena, beste batzuentzat "konstruktibista" amorratu baten ikuspegia izan daiteke, edota Piaget-en teoriaren eragina eta "kutsua" gehiegi nabaritzen zaion autore baten ikuspegia; guretzat garapenaren tratatu sintetikoa dena, beste batzuentzat garapenaren aspektu edo arlo konkretu batzuk gehiegi (edo gutxiegi) azpimarratzen duen eskuliburu; gure ustez era erraz eta ulergarrian idatzitako liburu, norbaitentzat, kasu batzuetan, azaleko azterketan gelditzen dena; guk pentsatzen dugun bezala, benetako "jarrera ebolutiboa" lortzen laguntzeko eta hipotesi sakonak planteatzeko oso egokia izan beharrean, ikasle edo deus ere ez dakien irakurleari garapenaren sarrera teoriko huts bat eskaintzen diona.

Horra hor ezagutzen ditugun arrisku edo kritikagarri diren zenbait puntu. Ez ditugu aipatuko, toki hone-tan behintzat, edozein adituk bere teoriaren arabera bota zitzakeenak; nahitaezkoak, bestalde, testuinguru teoriko zabal eta integratzaileago bat eratzen ez den bitartean, zientzia gazte guztien kasuan gertatzen den bezala. Edozein kasutan, egina dago gure gomendioa; zuei, orain, okerra edo zuzena den esatea.

Azkenik, komentario txiki hau bukatzeko, autorearen beste lan garrantzitsu batzuk aipatu beharrea aurkitzen gara. Besteak beste, honako hauek dira: *El animismo y el pensamiento infantil*, *Lecturas de*

psicología del niño, *Crecer y pensar*, *La psicología en la escuela*, *Aprender a aprender*, *Niños y máquinas*. *Los ordenadores y la educación*, *Los fines de la educación*, e.a. Jakin dezala irakurleak, interesatuz gero, liburuaren zati batzuk beste lan hauetan aurkitzen direla sakonago tratatuak. Azken finean, zerrenda luze honek eta bere puntan dagoen *El desarrollo humano* liburuak ibilbide zientifiko eta intelektual aberats eta emankor bat deskribitzen dute. Gure aldetik, inbidiaz eta esperantzaz ikusten dugu ibilbide hau, honako galdera hau eginez geure buruari: noiz ezagutu ahal izango dugu giza garapenaz eta euskaraz egindako antzeko ibilbideren bat?

Fernando Olabarrieta